Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3868

AGINDUA, 2009ko maiatzaren 12koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Getxoko (Bizkaia) «Fundación Diper» fundazioaren estatutuen aldaketa onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzen duena.

Getxoko (Bizkaia) «Fundación Diper» fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2008ko martxoaren 4an, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren menpe dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan eskabide bat aurkeztu zuen Victoriano Lorenzo Beramendi Eguilaz jaunak «Fundación Diper» fundazioaren izenean eta ordezkaritzan. Idazki horren bidez, Fundazioaren estatutuetan izandako aldaketa erregistroan inskribatzeko eskatu zuen.

Eskabide horri honako agiri hauek erantsi zitzaizkion:

Getxoko (Bizkaia) «Fundación Diper» fundazioaren estatutuak aldatzeko eskritura publikoaren bi kopia baimendu. Eskritura publikoa Bilboko Notarioen Elkargoko notarioa den Jose María Rueda Armengol jaunaren aurrean egin zen 2008ko otsailaren 26an (protokolo zk.: 614).

Eskritura publikoarekin batera dator Patronatuak 2008ko otsailaren 18an «Fundación Diper» fundazioaren Estatutuetako 5., 6. eta 35. artikuluak aldatzeko egin zuen bilkuraren aktaren ziurtagiria. Ziurtagiri hori Ane Miren Beramendi Marauri andreak, Fundazioko Patronatuaren idazkariak, 2008ko otsailaren 19an egina da eta Victoriano Lorenzo Beramendi jaunak, Patronatuko lehendakariak, ontzat emana.

Bigarrena.– Zuzendaritza honetako zerbitzu teknikoek, espedientea aztertu ostean, ebazpen-proposamena egin dute.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espedientea

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

3868

ORDEN de 12 de mayo de 2009, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se aprueba y se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la modificación de los estatutos de la «Fundación Diper», de Getxo (Bizkaia).

Visto y examinado el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, de la modificación estatutaria acordada por la «Fundación Diper», de Getxo (Bizkaia), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– El 4 de marzo de 2008 tuvo entrada en el Registro de Fundaciones del País Vasco, dependiente del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, instancia presentada por don Victoriano Lorenzo Beramendi Eguilaz, en nombre y representación de la «Fundación Diper», de Getxo (Bizkaia), solicitando la inscripción de la modificación estatutaria de la Fundación.

A dicho escrito se adjuntó la siguiente documentación:

Doble copia autorizada de la escritura pública de modificación de estatutos de la «Fundación Diper», de Getxo (Bizkaia), otorgada en Bilbao el 26 de febrero de 2008, ante don Jose María Rueda Armengol, Notario del Ilustre Colegio de Bilbao (n.º de protocolo: 614).

Dicha escritura pública incorpora certificación expedida en Bilbao el 19 de febrero de 2008 por doña Ane Miren Beramendi Marauri, Secretaria del Patronato de la Fundación, con el visto bueno de su Presidente, don Victoriano Lorenzo Beramendi Eguilaz, del acta de la reunión del Patronato celebrada el 18 de febrero de 2008, en la que se acordó modificar los artículos 5, 6 y 35 de los Estatutos de la «Fundación Diper», de Getxo.

Segundo.– El expediente ha sido examinado por los Servicios Técnicos de esta Dirección que, a su vista, han elevado Propuesta de Resolución.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden, la re-

agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidego Fundazioen Legeko 36.3 eta 40. artikuluetan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; eta, lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen 4/2009 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren 1.paragrafoan eta lehenengo xedapen iragankorrean.

Bigarrena.– Estatutuen aldaketa onartzeko eta aldaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko espedienteari funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, arau hauek ezarritako eskakizunak bete dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan eskatutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak.

Lege eta arau hauek ikusi dira: indarrean dagoen Konstituzioa; Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen 101/2007 Dekretua eta orokorrean aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak,

EBATZI DU:

Lehenengoa.– «Fundación Diper» fundazioaren estatutuetako 5., 6. eta 35. artikuluen aldaketa onartzea.

Bigarrena.– Getxoko (Bizkaia) «Fundación Diper» fundazioaren estatutuetako aldaketa, agindu honetako data duela, inskribatzeko agintzea. Horretarako, 2008ko otsailaren 26an Bilboko Elkargoko notarioa den Jose María Rueda Armengol jaunak emandako eskritura publikoan ezarritakoari jarraituko zaio (protokolo zenbakia: 614).

Hirugarrena.– Fundazioari agindu honen kopia bidaltzea.

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal

solución del expediente de modificación estatutaria, en virtud de los artículos 36.3 y 40 de la Ley de Fundaciones del País Vasco, el artículo 3.1 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco y las Disposiciones adicional primera-1 y Transitoria primera del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Segundo.– Al presente expediente de aprobación de modificación estatutaria y ulterior inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos previstos en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como en el artículo 44 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Vistos la Constitución vigente, el Estatuto de Autonomía para el País Vasco, la Ley de Fundaciones del País Vasco, el Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, y demás normas de general y pertinente aplicación,

La Consejera de Justicia y Administración Pública,

RESUELVE:

Primero.– Aprobar la modificación de los artículos 5, 6 y 35 de los estatutos de la «Fundacion Diper», de Getxo (Bizkaia).

Segundo.– Ordenar la inscripción de dicha modificación estatutaria de la «Fundación Diper», de Getxo (Bizkaia), con la fecha de la presente Orden, de acuerdo con lo establecido en la escritura pública otorgada en Bilbao el 26 de febrero de 2008, ante don Jose María Rueda Armengol, Notario del Ilustre Colegio de Bilbao (n.º de protocolo: 614).

Tercero.– Remitir a la citada fundación copia de la presente Orden.

Cuarto.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Supe-

Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 12a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

rior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de mayo de 2009.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.